

Jokoa eta jolasa helduen artean. Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren bidez helduen gizartekotzea



Asier Oiarbide Goikoetxea*

Helduek praktikatzen dituzten hiru Jarduera fisikok euskal kulturaren hartzen duten esanahia aztertzen da lan honetan. Behaketa partehartzailea ezaugarri duen etnografia lanean oinarrituz mendi zeharkaldiak, aerobica eta futbola aztertzen dira errealitate ludikoa osatzen duten lau zentzuak analizatuz: jarduerak egiten diren ingurune fisikoa, denboraren eraikuntza, partaideen arteko elkarrekin-tza eta objektuekiko mantentzen den harremana. Azkenik, ezaugarri horien ondorioz duten esanahi soziala azalduz.

Giltza-Hitzak: Mendi zeharkaldiak. Aerobica. Futbola. Behaketa partehartzailea. Jokoa. Jolasa. Jolas-jokoa.

En este trabajo se analiza el significado que toman en la cultura vasca tres actividades físicas practicadas por adultos. Basándonos en el trabajo etnográfico que tiene como característica la observación participativa, se estudian las travesías de montaña, el aeróbic y el fútbol, analizando los cuatro elementos que conforman la realidad lúdica: el entorno físico en el que se realizan las actividades, la construcción del tiempo, la interacción entre los participantes y la relación que se mantiene con los objetos. Por último, se explica el significado social que tienen como consecuencia de esas características.

Palabras Clave: Travesías de montaña. Aeróbic. Fútbol. Observación participativa. Juego de competición. Juego de diversión. Juegos de diversión y competición.

Ce travail analyse la signification dans la culture basque de trois activités physiques pratiquées par les adultes. À partir du travail ethnographique, fondé sur l'observation participative, sont analysés la randonnée en montagne, l'aérobic et le football, sur la base des quatre éléments qui forment la réalité ludique : l'environnement physique dans lequel se déroulent les activités, la construction du temps, l'interaction entre les participants et la relation avec les objets. Avec, pour terminer, l'explication de la signification sociale qui en découle.

Mots Clé : Randonnées en montagne. Aérobic. Football. Observation participative. Jeu de compétition. Jeu de divertissement. Jeux de divertissement et de compétition.

* UPV / EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fak. Lasarterako Atea, 71. 01007 Vitoria / Gasteiz. asier.oiarbide@ehu.es.

SARRERA

Ezjakintasanaren ilunpean ezkutaturik dagoena arakatu nahi izatea, beti izaten da motibo bikaina ikerketa bat aurrera eramateko. Ikertzeko beharrezkoa den argiaren indarra, areagotu egiten da gure sinismen eta bizipenetan murgiltzen garenean: txiki txikitatik, jarduera fisikoak gure bizitzaren osagai izan dira, plazer eta oroimen bikainak dastatzeko aukera emanez. Adar horietan sortutako printzipioetan oinarritu zen ikerketa zientifikoaren arra. Gure harreman sozio afektiboak, kirol desberdinetan arituz nola eraiki zireneko kezka, izan zen abiapuntua; eta helmuga berriz, jarduera fisiko desberdinei euskal gizarteak ematen dien esanahia agerian uztea.

Txikitan nire gurasoen babesean Aralarren zehar egiten genituen ibilaldiak izan ziren nire mendizaletasunaren iturri eta gaur egun arte malda, lepo, tontor eta haranen barrena mendikate askotan ibili gara. Ezaugarri horiek mendi zeharkaldiei buruz ikertzen hasteko motibo bikainak izan ziren; barnean daramagun arra eraldatu eta hegan egiteko aroa; ikasketak bukatuta bidegurutzean aurkitzen den lizentziatutik jakintzaren bidezidorra hartzen duen ikerlariaren denbora.

Ikerketaren hegaldiak aurrera jarraitu zuen Euskal Herriko kiroldegí guztietan eskaintzen den jarduera batekin: aerobicarekin. Kasu honetan kemena, ezin ukatu, gizon izatearen harrotasunak eman zigun. Dantzak eta erritmodun jarduerak ez dira inoiz gure bihotzeko azukre koskorrak izan, baina nagusiki emakumeek egiten duten jarduera bat izanik, “gu ez gara gutxiago” pentsatzeak, sartu gintuen jakintza sortzearen bigarren abentura honetan. Harrotasuna ez da beti lagun ona izaten eta makina bat tripa jate jasan behar izan genituen gizonetzkoen arloan gutxiesten den aktibitate horretan.

Azterketa egiteko hirugarren jarduera bezala futbola aukeratu genuen. Gaztetan jokatzek azterketa lana erraztu egingo zigun ustea genuen; baina “ustea erdia ustel”. Aurre iritziek lagundu beharrean, itsutu egin gintuzten eta horren aurka, ikertzaileak, bihotza atera, zapaldu, hil eta berriro sartu beharrean dauka; ilunpean argi izpiak sortuz ezezaguna agerian utziz. Futbola gainera, gizartearen eta ikuskizunean erabat errotutako kirola izanik, aukera anitzak eskaintzen zigun maila, talde eta txapelketa desberdinen hautaketan.

Baina mendi zeharkaldiak aerobica eta futbola aukeratzearen arrazoiak ez ziren izan soilik afektiboak. Hautaketa horren bigarren zutabea arrazonamendu zientifikoa izan zen. Jarduera bakoitzak arauetan eta horiek onartuz aktibitatearen parte hartzen duten jarduleetan, diferentzia nabarmenak azaltzen ditu. Mendi zeharkaldiak ingurune natural basati batean egiten diren bitartean, aerobica, arto itxi eta estali batean praktikatzen da eta futbola berriz poliki poliki etxekotzen ari garen zelai batetan. Era berean mendi zeharkaldien parte hartzaileak gizon eta emakumeak diren bezala, aerobicean emakumezkoak eta futbolekoak gizonetzkoak dira nagusiki partehartzaileak. Guretzako ezinbesteko premisak ziren lotura afektiboa eta arrazonamendu zientifikoa lotuta genituen.

Jarduerak aukeratuta, ikerketa aurrera eraman beharreko metodologia zehaztu genuen. Egokiena behaketa partehartzailea iruditu zitzaigun; etnografia

lana burutuko genuen. Kirol kulturen munduko mapan, hiru kirol tribuetara barneratu behar ginen eta bertako partehartzaileekin partekatu bertako bizipenak, jakinik, ingurunera egokitu egin beharko ginela, gertakizunak behatu, datuak hartu eta azkenik horiek interpretatu. Aurrez aurre geneukan erronka handia izanik, ilusio eta ikusminez ekin genion lanari, aurkitzen gindoazenak kemena indartzen zigularik. Prozesu guzti hori ni neu naizen bezalakoa izateko jarraitu dudan bidea ulertzeko baliagarria gertatu zait; nire barrunbe ezezagunak aztertuz munduan kokatzeko.

Ikerketa honen azterketa, jarduera fisiko ludikoen errealitate soziala osatzen duten lau zentzuak analizatuz aurkezten da; burutzen diren espazioa, denboraren eraikuntza, partaideen arteko elkarrekintza eta objektuekin duten harremana. Lau zentzu horien ezaugarriak analizatu ondoren jarduera bakoitzak Euskal kulturari jasotzen duen esanahi soziala argitzen dugu.

1. PIRINIOETAKO MENDI ZEHARKALDIAK

Mendi ibilaldietan ez ditugu aurkitzen partehartzaileen eskubide eta betebeharrak zehazten dituzten araurik; ez da ageri beste jarduera batzuetan aurkitzen dugun erregelamenduaren parekorik. Baina horrek ez du esan nahi mendizaleek jokabide irizpide batzuk betetzen ez dituztenik. Goizean goiz ateratzea, eguraldi txarrarekin buelta hartzea edo ilundu baino lehen itzultzea, arau bihurtu diren ohi-turak dira. Horiek ez errespetatzeak, jarduera arriskutsuagoa bihurtuko du, mendizalearen bizitza konpromisoa areagotuz eta egoeraren kontrol gabeziak ziurgabetasun maila handituz. Ziurgabetasun horren iturburua etengabe eraldaketak jasaten dituen ingurune naturala da.

1.1. Ingurune natural aldakorra

Mendiak, natura bere birjintasun osoan aurkitzen den eremuak dira. Ama lurrak egindako eskultura horiek, burdin imanak izango balira bezala, mendizaleak erakartzen dituzte bertan jasango dituzten bizipen eta sententzioen bila. Tes-tuinguru horrek dituen aldakortasun ezaugarriek oinarritzko papera betetzen dute: mendikate, bidezidor edo bailara berdina ez da neguan eta udan, edo gauez eta egunez, egoera iguanean egongo eta eguraldiak aldaketa horietan eragina izango du: lainoak, euriak, elurrak, izotzak edo eguzkiak, basoak eta larreak biluztu, tapatu, jantzi edo erantziko dituzte.

Egoera horietan, mendizaleak, ahal duen informazio gehiena bildu beharko du ingurunetik. Oinez doan bitartean, bidean eta bere ibilian eragina izan dezaketen aldagaien informazioa jasotzen saiatuko da. Ingurunea ez da mendizalearekin elkarrekintzan arituko; ez du intentziorik informazioa ezkatatu edo erakusteko, alde edo kontra egiteko; zeinuak, bertan aurkitzen dira, distira, hezetasun edo begirada xume batekin beha daitezkeen modura. Mendizaleak informazio hori jaso eta interpretatu egin beharko du ondoren jokabide egokiena egiteko. Naturatik jasotzen duen informazioa geroz eta handiagoa den heinean, igo egin-

go dira ibilbidea arrakastaz burutzeko aukerak. Jo dezagun oinez doan bitartean bidean goroldioz estalitako harri leun bat behatzen duela, gauean egindako ihintza inguruan antzemanez. Guzti hau jasotzen duen mendizaleak, jauzi txiki bat egin eta harri leun hori ekidingo du. Aldiz, beste batek ez du ihintzaren zeinurik jasoko eta oina harri gainean jarri eta irristatu egingo da. Zeinuen irakurketa eta interpretazio hau informazioaren teorian oinarritzen da eta zeinu kopurua handiagoa den heinean, ibilbidea arrakastaz burutzeko aukerak handiagoak izango dira. Mendian ibiltzen ikastea, zeinu hauen irakurketan datza, guztiz kontrola ezina den jarduera batean etengabe erabakiak hartzen ikasiz.

Inguruneko informazio hori jasotzea ez da eremu guztietan berdina izango. Mendizalea oinez doan bitartean, baso, sakan edo tontorrek pasatzen ditu eta guztiak lotzeko lurraren arteria edo zainak izango balira bezala bideak aurkitzen ditugu. Ganaduak eta gizakiak bere ibilian eginiko bidezidorra dugu horietako bat. Bidezidorra estua izaten da, sarritan bi lagun paraleloan ibiltzea ezinezkoa egiten da eta malda handitzean sigi-saga doan lur barruko suge baten antzeko irudia hartzen du. Bidezidorretan mendizaleak etengabe zorura begira joaten dira, harriak, zuhaitzen zainak edo errekatxoak ohikoak izaten baitira eta etengabe aldatze horretan zeinuen irakurketa, esanahia eta erabakia instant guztietan eginenez. Pirinioetako sapolda handietan aurkitzen ditugun larre handiak ere mendi zeharkaldietako ibilbide dira. Eremu handi hauek eguraldi onarekin, ibiliaz eta ikuspegiak gozatzeko toki zoragarriak dira, baina eguraldi txarrarekin, lainoa, euria edo haizea kasu, infernu bihurtu daitezke zeinuen biltzea zailduz. Lurrezko zoria duten pistak Pirinioetako ibilbideen mapa ere osatzen dute. Automobilak ibiltzeko gizakiak egindakoak, bidezidorra baino zabalagoak eta malda gutxiagokoak, inguruneko informazioa bildu eta esanahia emateko esfortzu txikia eskatzen dute; oinezkoa hitz egiten eta aurrera begira joatea ohikoa izango da. Azkenik, eskaladako pasoak aurkitzen ditugu. Paso hauek tontorrera igotzeko azken zatietako tximinia deitzen zaien guneetan aurkitzen dira edo bi mendi bailara arteko lepoetan. Oinak gain, eskuak erabiltzea beharrezkoa izaten da eta erorketa batek bizitza galtzea ekar dezake. Toki hauetan informazioaren deskodifikazioa areagotu egin behar da eta mendizaleek zentzu guztiak kanpora bideratzen dituzte zeinu ñimiño guztiak jaso eta egoera kontrolpean izateko.

1.2. Momentuak gozatuz

Mendizalearentzako ez dago lepo edo tontor batetik behatu daiteken paisaia baino koadro hobearik; goietatik zerumugaz gozatzea da mendian dabilenak jasotzen duen saria. Ikuskizunak egunsenti edo iluntze paregabea ere izan dezake eta mendizaleari gogora arazten dio mendikate eta lautadak osatzen duten erraldioen munduan, bere txikitasuna. Baina batzutan, gozamina ustekabean etortzen da sarri talde bat harkaitz artean grabitateari desafioka saltoka ikustean. Une horretan taldea gelditu egingo da partaide guztiak bilduz eta momentu hori guztien artean partekatuz.

Pasarte horiek adierazten dute mendizaleak denborarekin daukan erlazioa. Ibiltariak bizi duen denboraren ardatza sailkapen edo txapelketa ezak jiratzen

dute. Mendi zeharkaldietan ez dago ez ranking eta ez irabazlerik; emaitzen memoriarik ere ez da gordetzen. Zeharkaldiaren amaieran ez dira sariak eta zigorrak banatzen eta partaide guztiek erakusten dute aldibereko zorion eta atseka-bea zeharkaldia bukatu delako. Une horietan, mendizaleek, beraien bizi egoera goratu eta berpizten duten momentuak gogoratzen dituzte. Ibiltariak denbora zikliko batean murgilduta dabilta, “zertara zoazte mendira nekatzera?” bezalako iritzietatik urrunduz, irteera bakoitzak osatzen duen zikloan izpiritua aberasten. Zeharkaldia ez da egiten zerbait lortzeko, baizik eta guk bizitzeko. Denbora mota honen adibide izango dira ibilaldietan etengabe ematen diren gertakizunak: malda handi batean aurrena doana, atzean gaizki pasatzen ari den bere kideari elkartasuna erakutsiz gelditu, elkarrekin igotzeko edo taldeko martxa abiadura polikien ibiltzen denari egokitu.

1.3. Zeharkaldietako kooperazioa

Mendizale taldeak zeharkaldi bat egitea adosten duenean izan ditzakeen zailtasunak aurreikusten ditu. Baina adostasun horren hitzarmenaz gain, zeharkaldiak arrakasta izan dezan taldea antolakuntza batean oinarritzen da: partaideen artean ematen den elkarrekintza motorrean.

Ibiltariak oinez doazen bitartean, funtsezkoa den komunikazio motor bat mantentzen dute. Zuzenekoa den elkarrekintza hori gabe taldea sakabanatu eta hautsi egingo da eta zeharkaldia porrotera bideratuko da. Partaideen arteko komunikazio motor hau kooperaziozkoa da eta ikusmenaren bidez egituratzen da. Partaideak, soka batez lotuta joango balira bezala ibiltzen dira eta soka horren osagaia ikusmena da. Ikusmenezko korda hausten bada, kooperazioa eten egingo da, porrotaren arriskua handituz. Kooperazioa mantentzeko beharrezkoa izango da oinezko lagunak ikustea.

Ikusmenezko soka honek figura desberdinak hartzen ditu Pirinioetako zeharkaldietan aurkitu ditugun ibilbideen arabera. Bidezidorretan, soka sigi-saga doan suge baten antzera ibiliko da; malda edo zelaien arabera mugituz. Mendizaleak pista batean doazenean, taldeak korapilodun korda baten antza izango du marapilo bakoitza partaideek osatzen dituzten taldetxo desberdina izanik. Larre edo belardi handietan, sokak, itsasontzi baten branka aurreratzean urak egiten dituen olatu txikien antzerako irudi bat hartuko du: erpin baten ondoren irekita eta zabal-duta doan figura. Eskaladako pasoetan aldiz, soka, uzkuratzen eta luzatzen doan har bat bezala murgilduko da; partaideen arteko distantziak txikitu eta handituz.

1.4. Mendiko objektuak

Nahiz eta oinez ibiltzeko ezinbestekoa dugun materialik egon ez arren, oinetakoek edo berokiek ibilia erraztu eta babestu egiten dute. Mendiko botak dira mendizale bat identifikatzen duten objektuak eta okerdura eta istripuetatik babestuko gaituzte. Botekin batera motxilak zeharkaldietako sinbolo bihurtu dira eta mendizaleek erabiltzen dituzten gainerako materiala garraiatzeko erabiltzen

dira, besteak beste: euritako, betaurreko, kantiplora, beroki.... Material guzti hauen ondorioz zeharkaldia seguruagoa eta erosoagoa izango da. Bestalde, ukaezina da mendi zeharkaldietako materialak teknologia berriekin duen lotura. Petrolioa fintzean lortzen diren ehunez eginiko arropatetik hasi eta ordulari edo kamera digitaletaraino, garapen teknologikoaren adibideak erruz aurkitzen ditugu. Ingurune natural aldakorrek eragiten duen ziurgabetasunak areagotu egiten du produktu horien erabilpena.

2. AEROBICA

Erritmo musikalak ematen dio Aerobicari berezko izaera; azken finean aerobica, musikaren erritmoan egiten diren dantza pauso desberdinen konbinaketa baita. Doinuak dituen "beats" edo taupaden erritmora espazioan figura batzuk dantzatzean datza aerobica. Ezaugarri horrek eta nagusiki emakumeek egiten duten praktika bat dela jakiteak, aztarnak ematen dizkigu baina ez da nahiko aerobicaren esanahi ludikoa topatzeko.

2.1. Areto itxi eta estalia

Aerobic jarduleak saioen hasieratik amaieraraino egonkor eta berdina mantentzen den espazio batean kateatzen ditu dantza pausoak. Lehen aldiz aretora hurbiltzen den partehartzaileak, koreografia egoki egin ahal izateko salak dituen ezaugarri guztiak barneratzen ditu. Garunean sonar bat izango balu bezala aretoak dituen ezaugarriekin erliebe espazial bat marraztuko du bere buruan. Aurreneko aldian hau egin ondoren, gehiagotan ez du egin beharrik izango, gela egoera berdinean mantenduko baita eta osagaiak ez baitira aldatuko: zorua ez da bustiko nahiz eta kanpoan zaparradak eta hezetasuna nagusi izan; Jarduleen ikusmena ez da gutxituko nahiz eta kaleetan iluntasunak ziurgabetasuna sortu. Aerobic partehartzailea ez dabil etengabe aretoan aurkitzen den informazioa bereganatu nahian; bere zentzuak ez dira espazioan dagoen informazioa jasotzera zuzenduak egongo, ez da beharrezko izango, aretoa estalita eta itxita egotean praktikako espazioa egonkor egongo baita.

Aerobic saio batean partehartzaile direnak, banan bana edo taldetxo desberdinetan aretora sartu eta koreografia dantzatuko duten gunean kokatuko dira. Inork ez du berea den tokirik eta bakoitzak nahi duen lekuan jartzeko aukera du, ez baitago hori zehazten duen arau espliziturik. Baina araurik ez egon arren, partehartzaileak saiatzeko dira kide bakoitzak ohikoa duen gunea errespetatzen. Hasiera batean estalita agertzen den arren behaketa zorrotzago bat egitean antzematen da espazio okupatze ordenu bat jarraitzen dutela. Eta ordenu hau aerobic menperatze mailan oinarritzen da: jardule trebeenak lehen ilaratan kokatuko dira eta hasiberriak azken ilaratan. Aretoa aurretik atzera betetzen da partehartzaileen mailaren arabera; espazio kokatze hierarkia aerobic menperatze mailan oinarrituko da.

2.2. Koreografiaren errepikapena: denbora zikliko bat

Aerobicaren denboraren azterketak aldagai desberdinak hartzen ditu bere baitan: saioaren edo denboraldiaren iraupena, jarduera egiten den egun eta ordutegiak edo eta musika doinuaren denbora egitura. Baina jarduera honen denbora ezaugarri nagusia emaitzen memoriarik gabekoa izatean datza.

Partehartzaileak aerobic saio batean murgiltzen direnean, sailkapen, ranking eta irabazle gabeko jarduera batean aritzen dira. Inortxok ez die saiora ez azaltzea aurpegiaratu eta koreografia egokia egiteagatik ere, ez da saririk banatuko. Jarduleak, praktikak ematen duen plazeraz gozatzen dute momentuko egoera biziz. Bizitza laborala oinarritzen den denbora lineal batetik babesturik; lana egitearen kausak dirua du efektu; aerobic jarduleak denbora zikliko batetat gozatzen dute, zikloak koreografiaren modura errepikatzen direlarik.

2.3. Begiralea eta jarduleak

Nahiz eta aerobica egiteko aukera edozeinek izan, nahikoa izango litzateke bideo zinta bat magnetoskopioan sartu eta etxeko saloian aritzea, ez da errealitatean ematen den egoera bat, aerobica taldeak praktikatzeko baita, koreografia aurrera eramateko gidaritzaren begiraleak betez.

Monitorea da dantza pausoak eta koreografia agindu, erakutsi eta zuzentzen dituen. Ikasle partehartzaileak ispilua aurrez aurre dutela eta begiralearen atzean ilaratan kokaturik, honek egiten dituen dantza pausoak egiten saiatzen dira. Irakasle begiralea, taldearen mailara egokitu eta partaide guztiak koreografia ongi egin dezaten saiatuko da. Horretarako, koreografia "bloke", "esaldi" eta dantza pausoetan zatituko du, partehartzaile guztiak konposizioa menperatu dutela ohartu arte; ondoren, pauso guztiak elkaturik koreografia osoa egingo du errepikapen bidez guztiak ikasi eta disfrutatu arte. Elkarrekintza horretan antzematen da begirale-ikasle arteko kooperazioa. Monitorea, koreografia, musika eta bere jokabidea taldera egokituko ditu eta ikaslea, guztia aintzakotzat hartzen saiatuko da; irakasleak ez ditu engainu edo "finta" bidez dantza pausoak ezkatzen eta ikasleek ere ez dituzte norberak nahi duen bezala koreografiak egiten, baizik eta bi rolen arteko interes sinergiak batu egiten dira aerobic eginez gozatzeko.

2.4. Musika aparatua

Aerobica erritmo musikala duen jarduera bat izanik, ezinbestekoa egiten da musikaren melodiak joko dituen objektuen bat izatea. Koreografia dantzatzeko musikaren "DUM, dum, dum, dum, dum, dum, dum, DUM...", taupadak, beharrezkoak egiten dira. Soinua zabalduko duen musika aparatua bat aerobic egiten den sala guztietan aurkitzen dugu. Bestalde, ispiluak, aretoen fisnomiaren parte dira eta aerobic jarduleen kokapena gidatzen dute, guztiak ispiluekiko aurrez aurre jartzen baitira. Salan, taldeak hartzen duen orientazio espazialez gain, begiralearentzat ikasleen jarraipena egiteko eta akatsak zuzentzeko tresna

Oiarbide, Asier: Jokoa eta jolasa helduen artean. Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren bidez...

ere badira. Beste objektu batzuk ere erabiltzen dira saioetan: step, esterilla... baina hauek ez goteak ez du bertan bera uzten aerobic saioa.

3. FUTBOLA

Futbolaren analisisan elkarrekin bizi diren bi errealitate sozial antzeman ditugu: entrenamenduak eta partiduak. Futbolari eta zaleentzat bistakoa dena bi dinamiken arteko desberdintasunen adierazgarri da. Diferentzia horiek izan dira zentzu bakoitzaren azterketa entrenamendu eta partidetan banatzea egin gaituztenak, bakoitzaren ezaugarriak azalera azmoz.

3.1. Futbol zelaien txandaketa eta norberaren zelaia

Gipuzkoako gorengo mailako taldeak bira bikoitza antolatuta dagoen txapelketa bat jokatzeko dute, talde bakoitzaren aurka partidak etxean eta kanpoan jokatu. Funtzionamendu horrek eta aditzera emateko erabiltzen den espresio linguistikoak, partidek duten lehen ezaugarri espaziala ematen digute: partidak, etxeko futbol zelaietan eta kanpoko zelaietan jokatzeko dira. Etxeko zelaietan ingurune fisikoak sortzen duen ziurgabetasuna minimoa den bitartean: futbolariak, neurri, koska, inklinazio eta belarraren egoera ezagunak dituzte; kanpoko zelaietan ezin da gutxietsi. Hori ekidin ahal izateko, jokalariek, kanpoko zelaira iritsi bezain azkar paseotxo bat ematen dute informazioa barneratu eta ziurgabetasuna gutxitzeko asmoz. Jokabide hau futbol zelaiaren ezagutzak ematen duen abantaila gutxitzeko modu bat besterik ez da.

Entrenamendu guztiak aldiz etxeko zelaietan egiten dira. Futbolariak ez zaie beharrezko egiten ingurunean aurkitzen den informazioa etengabe jasotzen aritzea; etxeko eremu, areto eta zelai desberdinak erraz ezagunak baitituzte. Astero instalakuntza berdinetan entrenatzeak, koska, zulo eta neurriak, ilunpetan ere bereizteko kapazitatea ematen die.

3.2. Partidak irabazi eta entrenamenduak erreplikatu

Behatu dugun txapelketaren puntuazio sistema sailkapenean oinarritzen da, partida bakoitza irabazten duen taldeak hiru puntu eta berdintzean puntu bat gehituz klasifikazioan; Partida galduz gero ez da puntu bat bera ere batzen. Emaitzak memorizatu, gorde eta publikatu egiten dira eta txapelketaren amaieran sariak eta zigorrak banatzen dira: aurrenekoa maila nagusiagora igoko da eta azken lauak hurrengo denboraldia maila baxuagoan jokatzeko dute. Partida irabazteak berehala du efektua sailkapenean hiru puntu gehituz. Denbora linealaren kausa eta efektua loturik agertzen dira partidetan.

Beste hainbat jardueraren artean partidak ere entrenamenduetako edukia izaten dira. Baina txapelketakoekin alderatuz ez da punturik gehitzen eta emaitzarik gordetzen; jokalarien artean ere ez da ranking egiten. Entrenamenduetako

Oiarbide, Asier: Jokoa eta jolasa helduen artean. Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren bidez...

edukiak, ariketa edo jarduera anitzak, ezaugarri komun bat dute: guztiak memoria gabeak dira; ez dira emaitzak kontutan hartzen.

3.3. “Gu vs arerioak” partidetan eta “gu” entrenamenduetan

Partidetako bi taldeen arteko aurka egiteak arauak beteko direla ziurtatuko duen epaile baten beharra du. Jokalari kopuru berdinarekin aurrez aurre eginez, partidak duela simetrikodun egitura dute. Talde bereko jokalariek beraien harremanak sendotzeko aldageletan oihartzun emozional handiko oihuak errepikatzen dituzte: “Ordizia euh!, Ordizia!, euh, Ordizia euh!”. Jeneral batek guda borroka batean soldaduak kokatzen dituen bezala entrenatzaileak partida jokatzen hasiko diren jokalariek erabaki eta prestatzen ditu; Partida hasi baino lehen ordenak, eta emaitza kaskarra denean atsedeneko errietak, ohikoak bihurtzen dira. Gu arerioen aurkako egitura, nagusi da partidetakoko jokalarien arteko harremanetan.

Prestatze saioetan egiten diren jarduerak egitura aniztetakoak dira eta talde dueluko egituradun jokoeekin batera, bat denen aurka edo kooperaziozko egitura duten aktibitateak ere egiten dira. Entrenamendu hasieran, bat denen aurkako egitura duen “rondo” bat jokatuko da, jarraian, bakarka egiten diren ariketak eta azkenik partidatxo bat. Egitura aniztasun hau denboraldian zehar mantendu egiten da eta bultzatu egiten du jokalarien artean ematen diren harremanak ere anitzak izatera: joko batean Aitzol Sergioren kide izango da eta hurrengoan biak arerio. Entrenamenduetan taldea hobetzeko jokalarien formazioa bilatzen da.

3.4. Txandakako baloien erabilpena eta beti baloia berdinak

Futbol jokoan objektu bat dago beste guztien gainetik: baloia. Baloia jokoa- ren muinean dago, ez baitago futbolik baloirik gabe. Behaketa egin dugun txapelketan, etxean jokatzen zuen taldeak jartzen zituen partidak jokatze- ko baloia. Espazioan aztertu dugunez etxean eta kanpoan jokatzen dutela kontutan hartuz, partidetan txandaka erabiltzen dituzte norberaren eta arerioen baloia.

Entrenamenduetako baloia ordea taldearenak dira eta ez da ematen txandaketarik, prestatze saio guztietan norberaren baloiekin entrenatzen baita. Kasu honetan ere, jokalarientzako, baloia hartu ditzaketen norabide, punpa edo abia- durak ezagunak dira.

4. MENDI ZEHARKALDIK, AEROBICA ETA FUTBOLA: JOLASTEN, JOLAS- JO- KOAN ETA JOKATZEN

Jarduera ludikoen lau zentzuak aztertzean aktibitate bakoitzaren ezaugarriak agerian jarri ditugu; orain, praktikatzeko sortzen dituen baloreak eta Euskal Herrian hartzen duten esanahi soziala aztertze- ko garaia da. Horretarako euskal kulturaren jarduera fisiko guztiek jasotzen dituzten figura ludikoak aipatu behar ditugu: jokoa, jolas-jokoa eta jolasa. Figura horietako bakoitzak, jarduleak praktika-

Oiarbide, Asier: Jokoa eta jolasa helduen artean. Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren bidez...

tzean bameratzen duen erlazio mota bat bultzatzen duenez, mendi zeharkaldien, aerobicaren eta futbolaren abizen soziala biluzteak, sustatzen dituzten balore sozialak topatzera gidatuko gaitu.

Mendi zeharkaldiak ziurgabetasuna sortzen duen inguru natural aldakor batean burutzen dira, partaideen artean kooperatuz, irabazle eta emaitzarik gorde gabe eta segurtasuna, babesa eta erosotasuna ematen duten objektuekin. Ezaugarri horiek euskal kulturaren jolasa deitzen diegun egitura ludikoei dagokie. Jolasek etxe-koen arteko harremanak erreproduzitzen dituzte, erlazio familiarak; helburu komun bat aurrera eramateko taldeko partaideen aniztasuna; eta praktikatzeko, partekatzeako plazera sustatzen du: pozak partekatu, miseriak partekatu, beldurrak partekatu, aniztasuna partekatu...

Itxita eta estalita dauden aerobic aretoetan partehartzaileak kolaboratu egiten dute, irabazle eta emaitzen memoriarik gabe eta jardueraren egituraren parte diren objektuekin. Ezaugarri horiek euskal kulturako jolas-jokoarenak dira eta eguneroko lanak erreproduzitzen dituzte; etxearen mantenamendua, taldearena, gizartearena; eta praktikatzeko errepikatzeako plazerean hezten du: lanak errepikatu, zereginak errepikatu, jokabideak errepikatu...

Futbolak sinbiosian bizi diren bi errealitate sozial erakutsi dizkigu: partidak eta entrenamenduak. Partiduak norberaren eta arerioen zelaian jokatzeko dira, oposizioa eta kolaborazio duen duelu simetrikoko batean, irabazlearekin eta emaitzak gordez eta etxeko taldeak jarritako baloiekin. Ezaugarri hauek jokoarenak dira eta etxe-koek, kanpokoen aurrean dituzten harremanak islatzen dituzte. Bere praktikak irabazten sozializatzen du: partida irabazi, dirua irabazi, oposaketak irabazi, lan postua irabazi... Entrenamenduek aldiz beste egitura bat dute: prestatze saioak burutzen diren zelai guztiak etxe-koak dira, duelu simetrikokoarekin batera beste egitura batzuk ere burutzen dira, ez dago sailkapen edo emaitzen memoriarik eta erabiltzen diren baloiak norberarenak dira. Ezaugarri horiek jokotik aldenduz jolas-jokora hurbiltzen dira eta errepikatzeako plazera pizten dute. Futbol entrenamenduek zereginen errepikapenen bidez partidetarako taldea batzen dute.

Mendi zeharkaldiek, futbolak eta aerobicak erakutsi digutenez, helduek, jardueren izenaren bidez ezkututzen dute praktika horien abizen soziala: jolasa, jolas-jokoa eta jokoa. Helduek, beren hiritartasuna, jolasten, jokatzeko eta jolas-jokoan aritzen estimulatu dute; beraien jokabide, izaera eta erlazioak partekatzeako, errepikatzeako eta irabazteko plazerean gidatuz.

Oiarbide, Asier: Jokoa eta jolasa helduen artean. Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren bidez...

BIBLIOGRAFIA

ETXEBESTE OTEGI, Joseba. *Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque*. Doktore tesia, Paris: Universidad Paris V., 2001.

HALL, Edward T. *La dimensión oculta*. Madrid: Instituto de estudios de Administración Local, 1973.

OIARBIDE GOIKOETXEA, Asier. *Kanpokoak izatetik etxeokak izatera; mendi zeharkaldien etnografia bat*. Ikasketa aurreratuen ziurtagiria. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2004.

PARLEBAS, Pierre. *Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Editorial Paidotribo, 2001.

SHANNON, C.; WEAVER, W. *Teoría matemática de comunicación*. Madrid: Forja, 1981.

ZULAIKA, Joseba. *Ehiztariaren erotika*. Donostia: Erein, 1990.

—. *Bertsolarien jokoa eta jolasa*. Ediciones Baroja, 1985.